

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gu Urretxu Zumarraga Ikastolako bigarren Batxilergoko bost ikasle gara: Maialen Campos, Maialen Santamaria, Enara Ugarteburu, Iratxe Faria eta Saioa Urbizu. Hortik dator, hain zuzen ere, gure enpresaren izena, "SIMME". Hasieran, ez zitzaigun batere erraza egin ideia bat bideratzea, hainbat ideia baikenituen buruan.

Idea aproposena aukeratzeko gizartean dauden arazoak aztertzeari ekin genion. Bizitzen ari garen pandemia mundial honek hainbat arazo utzi ditu agerian, eta hauei erreparatuz, garraio publikoen zerbitzua hobetzen duen enpresa bat sortzea erabaki dugu. Garraio publikoaren erabilera sustatzea dugu helburu, izan ere, COVID-19 aren egoerak hauen erabilera berehala murriztu du, eta geroz eta gutxiago dira autobusez baliatzen direnak beste toki batzuetara joateko. Beraz, pertsonen segurtasuna da bermatu nahi duguna, hauek eroso sentitu daitezten eta garraio pribatua erabiltzera behartuta senti ez daitezten.

Denok dakigun bezalaxe, garraio publikoa erabiltzeak norbera bere autoan joatea baino gutxiago kutsatzen du, gaur egun hain nabaria den klima aldaketan gutxiago eraginez. Hori horrela izanda, pandemia honek ez du aitzaki izan behar garraio pribatua erabiltzeko, garraio publikoa hobetzeko baizik.

Hori kontuan izanda eta bidai luzeetarako erabiltzen diren aukien egiturari jarraituz neopreno txertatzea erabaki dugu. Erosoa dela ziurtatzeko eta neopreno aukiarik itsatsita dijoala dirudi dezan, motor elektriko batez baliatuko gara. Honek, materiala tenkatuta mantentzeaz gain, mugitzeaz arduratuko da, azalera guztia desinfekzio prozesutik pasa dadin eta bidai bakoitzaren ondoren aldatzea beharrezkoa izan ez dadin.

Neopreno materiala erabiltzea erabaki dugu desinfekzio prozesua igaro eta gero azkarren lehortzen den materiala delako. Horrez gain, desinfekzio hori azkarra izan dadin, aukiak motore elektriko bat izango du barnean neopreno bertatik igaro dadin eta horrela luzeera guztia desinfektatuko da ozonoaren erabileraz, neopreno zerbitzu bakoitzaren ondoren kendu beharra sahiestuz.

Hau posible izan dadin, hainbat enprekin aliatuko gara, esate baterako; *Eurozon* enpresarekin (ozonoa lortzeko) , *Foam Genesis Technology And Design Sociedad Limitada* (neopreno eskuratzeko) eta *Inaza* enpresarekin, gure ideia aukietan txerta dezaten.

Gure enpresari hasiera emateko gutako bakoitzak diru kantitate bat jarriko du eta bankuari mailegu bat ere eskatuko diogu. Honekin, gure proiektua aurrera ateratzeak dituen kostuak finantziatuko ditugu. Gure enpresa gauzatzeko

alokatutako lokal batez baliatuko gara, non beharrezko materiala bilduko dugun, eserlekuei edozein eraldaketa egingo diogun eta azkenik, gure bezeroekin harremanen mantenduko garen (zalantzak, galderak,..).

Bezeroarekiko harremana mantentzea funtsezkoa izango da gure enpresa aurrera eramanez ahal izateko; horretarako, web orrialde bat sortuko dugu, non geure enpresari buruzko informazioa azalduko den, gurekin harremanetan jarri ahal izateko bidez gain: posta elektronikoa, telefono zenbakia, etab. Teknologia berri hauek kontaktuan mantentzeko modu errazago eta erosoagoa eskaintzen dute, beraz geroz eta jende gutxiagok darabiltza aurrez-aurreko elkarketak; hau jakinda haiei moldatzea erabaki dugu. Baina, bezeroak nahiagoko balu, harreman pertsonala izateko aukera ere eskaintzen dugu, gure lokalean; hasieran Euskal Herriko hiru hiriburuetan irekiko ditugu (Donostia, Bilbo eta Gasteiz), eta, gure enpresaren bilakaera nolakoa den ikusten dugun heinean, mundu osora zabaltzen joango gara.

